

## Eztabaidaz betetako udalbatzarra

Lasarte-Oriako Udalak trena Oriara eramateak ekarriko duen jasangarritasun eta bidegarritasuna aztertzeke eskatuko dio Eusko Jaurlaritzari

Urteko lehen udalbatzarra burutu zen atzo eta gai ugari jorratu ziren, hala nola, Eusko Jaurlaritzak Euskotren Oriaraino eramatea bideragarri den ala ez aztertzea edo herriandagoen amiantoaren inbentarioa egin eta hondakin horien kudeaketa egokia egitea. (Hurrengo zenbakian landuko dugu gau hau sakonago).

### Landaberrin ordezkaria

Lehenik, Landaberrri BHIn Udalak duen ordezkaria Fernando Eskoriatza izatea onartu zen PSE-EEren eta PPren bozkek.

Ezker abertzaleko eta Ezker Batuko zinegotziak kritika egin zioten Udalarari ordezkari aukeraketan irizpide linguistikoak ez jarraitzeagatik.

Era berean, Ezker Abertzaleko zinegotziak salatu zuten udal ordezkariak organo ezberdinen bilera gutxitara joaten direla.

Udal ordezkariak deituak diren bileretara joaten direla esan zuen alkateak. Eta honetaz gain, Estatutuan bi hizkuntza ofizial daudela eta bakoitzak zein hizkuntzatan hitz egin nahi duen aukeratzeko eskubidea duela erantzun zuen.

### Kale berriak

Era berean, eraikitzen ari diren Goiegi Ibarreko eta Zabaleta Berriko kaleen izendegia onartu zen.

Hala ere, Ezker Batuako zinegotziak kultura Batzordean inguru horretako toponimien zerrendan izen gehiago zeudela eta izen hauen aukeraketa ez zela bateratua izan salatu zuen.

Alkateak izen horiek 1989an egindako toponimia azterketa batetik ateratakoak direla erantzun zuen.

### Trena Oriara

EuskoTren Oria auzora iristeari buruzko PSE-EEren mozioa onartu zen.

PSE-EEko bozeramaileak, Iñaki Mugikak, Oriako auzotar elkarteak aspaldi egindako eskaera dela eta eskaera egiteko garaia hau dela, azpimarratu zuen, "etorkizuneko trenbide sarea orain diseinatzen ari baitira".

Honen bitartez, Udalak Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio sailari lotura horren bidegarritasun ekonomiko, azpiegiturakoa eta sozialaren azterketa eta honen jasangarritasuna ikertzea eskatzen dio.



EuskoTren Oria auzora iristeko azterketari buruzko mozioa jorratu zen atzoko Udalbatzarrean.

Ezker Abertzaleko zinegotziak abstenitu egin ziren, "ideiaren espirituarekin bat gatz. Herritarrek zerbitzu publiko eta garraiobideak behar dituzte, baina Lasarte-Oria sardina lata batzen itxura hartzen ari da hainbeste azpiegituraz inguraturik."

### Bi mozioa atzera bota

Bestalde, Ezker Batuak eta EAJak Eusko Jaurlaritzak laguntza sozialak kentzearen


kontrako mozioa bateratua aurkeztu zuten.

Nahiz eta alderdi asko honen alde agertu eta kontrol gehiago behar dela azpimarratu, sozialistenen bozkek atzera bota zuten, batez ere, Eusko Jaurlaritzak ez duelako horren eskumena.

Era berean, Ezker Batuak Gobernuak erretiro adina luzatzeko proposamenaren gaitzespenerako mozioa aurkeztu zuen.

Baina herriko talde sozialistaren emendakin osoa egin zuen. Honetan, Pentsioen sistema mantentzeko Estatuko Gobernu, Patronala eta sindikatuak adostasunera egiten ari diren esfortzuen alde agertzen da.

Pentsioen sistema, banka eta sozialista eta langile izatearen eztabaida baten ostean, emendakina bozkatu, aurrera aterata eta bertan behera geratu zen EBren proposame na. •



Saharar  
Herriaren  
Lagunak  
elkarteak janari  
bilketa hasi du /3

### KIROLA /6

Lasarte-Oriako  
atleta gazteek  
lehiaketaz  
betetako  
asteburua dute  
Belodromoan



Dantza aitzaki,  
euskaraz ondo  
pasatzeko  
Muxikoen  
ikastaroa /4

**Gosariak  
Hamaiketakoak  
Plater konbinatuak  
Ogitartekoak  
Urtebetetzeak**

**ERREKATXO  
JATETxea**

**KARTA  
eta  
EGUNEKO MENUA**



**NAGUSI BERRIAK  
Ordutegi berria  
Giro berria**

**WIFI GUNEA**

•••  
Oria Etorbidea Ibaiondo Poligonoa 4 • Tel.: 943 365557  
Lasarte-Oria

**Neure kabuz**



Urte berri on!

GUZTIOI. 2010 urte zaila bukatu berri da urte bukaerako betiko petardo madarikatu horien danbadarekin. Gure aurrean daukagu 2011. Ke itxi txarrik gabe. Krisiak oraindik ere bere horretan jarraitzen du, eta dirudienez errekupeperazio geldoa izango da, baina Europako beste ekonomietan (Alemanian bereziki) hobekuntzak somatzen ari direnez, gure egoerak ere ziurrenik hobera egingo du. Ostera, San Sebastianeko martxaren entseguetako hotsak entzuten ari naizela, itxuraz 37 urte beharko dira pentsio osoa jasotzeko jubilatzeako orduan (iritsiko al naiz "jubilara" 67 urterekin?). Arazo larria daukagu ziurrenik hemendik 15 urteetara eta oraindik aurrerago, eta zoritxarrez konponbide errazik ez. Bestalde, dirudienez behingoz armen hotsak isilduko dira (ea oraingoan!) eta hori aukera ezin hobea dugu gure herrian bakea ezagutzeko. Hemendik gutxira hauteskundeak izango ditugu gure inguruan eta momentu ona izango da gure udaleko alor publikoaren kudeaketa modu egokiagoan egiteko, hainbeste urtetako gehiengoaren kalteak alde batera utziz.

Aurreko horiek guztiak gabonetan telebistan urtero botatzen duten Frank Capraren "Bai bitzita ederra!" filmetik ateratako desioak dirudite, bai, baina zergatik ez amestu gure eskuetan daukaguna eta lor dezakegunarekin?

Beno, besterik ez... Ah, bai!!! Nor izango da hurrengo alkatea?

**Ifaki Erauskin**

**Zorion-agurrak**



**Borja**

Zorionak gurasoen eta David-en partetik. Ondo pasa zure 10. urteurrenean.



**Haizea**

Zorionak preziosa, eta mila muxu gozo, pastelak zure kontu. Zorionak denon partetik.



**Lucia**

Zorionak aitatzko, amaitxo, osaba, izeba, aitona-amonak eta Lauraren partetik.



**Aitzol**

Zorionak hi! Jarrai ezak orain arte bezain "elegante"! Pastak earrak zeuden!



**Arantza**

Zorionak guapa! Muxu pilo bat! Beno... ez hainbeste... Lankideen eta etxekoan partetik.



**Karla**

Ongi etorri printzesa!!! Muxu asko Arai, aita eta amaren partetik.

**Hiribusaren ordutegia Lanegunetan**

www.tssst.info 943.361.741  
**Lasarte-Oria**

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Cocheras	Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Cocheras
7:45	7:55	8:00	8:05	14:15	14:25	14:30	14:35
8:15	8:25	8:30	8:35	14:45	14:55	15:00	15:05
8:45	8:55	9:00	9:05	15:15	15:25	15:30	15:35
9:15	9:25	9:30	9:35				
9:45	9:55	10:00	10:05	16:15	16:25	16:30	16:35
10:15	10:25	10:30	10:35	16:45	16:55	17:00	17:05
10:45	10:55	11:00	11:05	17:15	17:25	17:30	17:35
11:15	11:25	11:30	11:35	17:45	17:55	18:00	18:05
				18:15	18:25	18:30	18:35
12:15	12:25	12:30	12:35	18:45	18:55	19:00	19:05
12:45	12:55	13:00	13:05	19:15	19:25	19:30	19:35
13:15	13:25	13:30	13:35	19:45	19:55	20:00	20:05
13:45	13:55	14:00	14:05	20:15	20:25	20:30	20:35

**Guardiak**

**EGUNEKOAK: 09:00-22:00**

**Ostirala, 14**

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6  
Tel.: 943 363549

**Larunbata, 15**

De Miguel, Kale Nagusia 32  
Tel.: 943 371151

**Igandea, 16**

De Miguel, Kale Nagusia 32  
Tel.: 943 371151

**Astelehena, 17**

Urbistondo, San Frantzisko I  
Tel.: 943 366567

**Asteartea, 18**

Orue, Jaizkibel plaza 2  
Tel.: 943 362652

**Asteazkena, 19**

De Miguel, Kale Nagusia 32  
Tel.: 943 371151

**Osteguna, 20**

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea  
Tel.: 943 361774

**GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero**

Chucha, Kardaberaz 48 Hernani, Tel.: 943 551793

**Azoka txikia**

**Eskaientza inmobiliarioak**

• Lasarten logela bat alokatzen da pisu konpartitu batean. Interesaturik daudenak 600 612 085 telefono zenbakira deitu dezakete.

**Lan-eskaientzak**

• Pertsona bat eskaientzen da helarduak zaintzeko, garbiketa lanetarako, etxeko lanak... interna moduan edo orduka lan egiteko. Harremanetarako telefono zenbakia: 697 608 202.

• Begirale bat behar da ikasturtean zehar lanean aritzeko. Balaratuko da: begirale titulua eta esperientzia izatea, trebezia sozialak izatea, informatika ezagutzak. Harremanetarako: 943 371448 zenbakia edo posta elektronikoa: zerbitzuak@ttakun.com.

**Lan-eskariak**

• Usurbilgo kaxkoan pisua salgai. 2 gela, sala, sukaldea, komuna eta

trastelekuarekin. Dena berrituta eta amueblatuta. 3 balkoi eta oso eguzkitsua. Ilogailua ere badu. 246.500 euro. Harremanetarako telefono zenbakia: 686 969 112.

• 40 urteko pertsona arduratsua eskaientzen da lan egiteko. Marmol eta granituan aditua eta soldaduran jantzia. Harremanetarako zenbakia: 656 776 445 / 650 898 817.

• Lasarte-Oriako neska gazte bat kurtsoan zehar lana egiteko, bai umeak zaintzen edota klase partikularrak emateko eskaientzen da. Interesaturik dagoena 677823141 telefono zenbakira deitu dezala.

• Frantseseko klaseak ematen ditut, baita frantseseko mintzapraktika ere. Itzulpenak ere egiten ditut. Tituluduna. Harremanetarako telefonoa: 680 581 914.

• Eskarmentu eta esperientzia handiko gizona bat lan bila dabil. Prest dago edozein lan egiteko, esperientzia du arlo askotan. Harremanetarako telefonoa: 642 904 433, Jon.

**Oharrak jartzeko:**

txintxarri@txintxarri.info • www.txintxarri.irragarkilaburrak.com  
www.txintxarri.info • Geltoki kalea 4 • Tel.: 943 366858

**Heriotzak**

- Antonio Arregui Ugalde, urtarrilaren 1 In 72 urte zituela.
- Joseba Egaña Sorrairen, urtarrilaren 8an 80 urte zituela.



**GOIAN BEGO**

**Joseba Egaña**

80 urte zituelarik hil zen urtarrilaren 8an.

Urte asko izan dira herrian lanean boluntario gisa eman dituzunak. Herriko hainbat elkartetako kide izan zara, beti lanerako prest eta umore onez gainezka gainera.

Nerbio biziko gizona izan zara, kritikoa eta gauzak ondo, zuzen eta garaz egitearen aldekoa. Guk horrela ezagutu zaitugu.

Ustekabean joan zara, eta Lasarte-Oriako kultur elkarte askotako kideok sumatuko dugu zuk utzitako hutsunea.

**Gogoan izango zaitugu beti.**

**Ttakun eta Txintxarri**

**Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak**



**Lasarte-Oriako Udala**  
**Euskarako Batzordea**



**GFako Kultura eta Euskara Departamendua**



**EUSKO JAURLARITZA KULTURA SAILA**

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarriek ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.



Behemendi elkarteak Lasarte-Oriako Udaleko Gizarte Zerbitzuek eskaintzen dituzten zerbitzuak landa mundura hurbilduko ditu.

## Baserrietara iritsiko dira Udaleko Gizarte Zerbitzuak

Horretarako, Udalak eta Behemendi elkarteak hitzarmena sinatu zuten asteartean

Lasarte-Oriako Udalak, Donostialdea-Bidasoa eskualdeko baserriguneak garatzeaz arduratzen den Behemendi elkartearekin sinatu zuten asteartean lankidetzarako hitzarmena.

Hitzarmenean Behemendi Juan Cruz Alberdi gerentea eta Ainhoa Amundarari teknikaria, Jesus Maria Zaballos Lasarte-Oriako alkatea, Martin Moreno eta Lourdes Acebedo Gizarte Zerbitzuak zinegotziak hartu zuten parte.

### Mendekotasun legea

Hitzarmen eta diru laguntza honen bitartez Behemendi elkarteak Mendekotasunaren Legearen berri eman eta dibulgazio-kanpaina jarriko du martxan Lasarte-Oriako

baserri gunetako biztanleriaren artean.

Honen bitartez beraz, gure herriko baserri-eremuan bizi diren 60 urtetik gorako pertsonen beharrak antzeman eta kolektibo horri behar sozialak identifikatzen saiatuko dira, hala nola, etxebizitzaren kokapen geografikoa, bideen egoera, argiztapena edo familiaren egoera.

Era berean, Lasarte-Oriako Gizarte Zerbitzuek eskaintzen dituzten zerbitzuen berri emango diete "hauek eskaintzen dituzten eskubideak guztientzako dira eta horren jakinean egon behar direla uste dugu" azaldu zuten Lourdes Acebedo zinegotziak.

Hau guztia aztertu eta gero, antzeman dituzten pre-

miei buruzko txostena eskaini eta proposamenak egingo ditu elkarteak. Lasarte-Oriako Udalak hauek bideratzeko Gizarte Zerbitzuak ardura-dunekin egin beharreko bilerak hitzartuko ditu. Horrela, Mendekotasun Legeak pertsona hauei eta familiartekoei aitortzen dizkien eskubideetatik baliatu daitezke.

Hau guztiarekin pertsona adinduen egoera "hobetu eta ahal den neurrian bere ingurunean mantentzea dugu xedea" azaldu zuten Zaballos. Azken finean, "baserrigunetako populazioaren bizi kalitatea hobetzea".

Gauzak honela, hitzarmenean adierazitako helburuak 2011ko irailaren 30erako beteak egotea adostu dute. •

### ATERPEA

## Saskien zozketetako irabazleak

Aterpea Merkatarien elkarteak Eguberri hauetan herritarrek egin dituzten erosketak saritzeko asmoz, denda bakoitzeko saski bat zozketatu du.

Hauek dira denda bakoitzeko sarituak Ekain liburu denda, Juani Carballo; Goxogi gozo-denda Maribel Zurutuza; Martinez Multimedien, Carlos Bujan; Maiane lurrin denda, Dolores Carlos; Arregi elektrizitatean, Mirari Huici; Urruzola mertzerian, Eduardo Montero; Zumaburu liburudenda, Ana Murillo; Ormazabal Loradenda, Maria Luisa Gomez; Iturbe zapategian, Conxiti Jauregi; Maya Lentzeria denda, Aitziber Arresa; Lizarri Optikan, Juan Pedro Espinosa; Sukoa burdindegian Carlos Milla; Bideo Lagunak denda Itziar Arroyo; Olmi Mertzerian, Maria Garcia Fuentes; Abreu bazar denda, Ainhoa Elicechea eta Nogues jantzizaintza denda, Goyi Diaz Alonso.

Era berean, gogora arazten da gaur dela, Aterpeko jokotuta-koarekin saritua izan den Loteria Nazionala ordainduko den azken eguna. Bideo Lagunak (Tien 21) denda egingo da 17:00etatik 19:00etara. •

### UDALTZAINAK

## Galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, zilarrezko kolgantea, urrezko aliantza Jose Luis grabaketarekin, hiru bizikleta, bi erloju, urrezko pultsera bat, betaurreko graduatuak, erazton bat eta MP3 bat.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte.

Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara. •

### UDALA

## Udalari iradokizunak egin

Lasarte-Oriako Udalak herritarren parte hartzea sustatzeko iradokizun orrialdea duela gogora arazten da. Orrialdea Udaleko harreraren dago eskuragarri, baita baita [www.lasarte-oria.org](http://www.lasarte-oria.org) orrialdean ere.

Idatzi ostean, Udaletxeko harreraren dagoen postontzi berdean utzi edo iradokizunak@lasarte-oria.org helbide elektronikora bidali behar da orrialdea. •

### UDALA

## Obrak eta Hirigintza saila Ganbo kalean

Lasarte-Oriako Udalak gogora arazten du, Obrak eta Hirigintza sailaren bulegoak Ganbo Kaleko 1. zenbakian dagoen Udal Euskaltegi zaharrera tokialdatu direla, behin-behinean, harik eta "Udaletxea eraberritzeko eta handitzeko" obrak amaitzen diren arte. •

## Saharan itxaropena pizten

Marokok Mendebaldeko Sahara militarki hartu zuen 1976. urtean, orduan biztanleriaren erdia bere lurra preso geratu zen. Bitartean, beste erdia basamortutik ihes eginez Argeliako lurretara iritsi zen, eta han errefuxiatu modura geratu zen. 35 urte igaro ondoren, oraindik ere milaka familia zatiturik bizi dira, Marokok iparraldetik hegoaldera eraikitako harresi batengandik banaturik, hain zuzen ere.

### Egoera larria

2010 urteko urrian, azken urteetako erreprimitearen

atalik gogorrenetarikoa bizi izan zen.

Saharar Herriaren Lagunak taldeak, gatazka honen aurrean Marokok izan duen jarrera salatzen du: "Marokok indarkeria osoz Duintasunaren protesta kanpamendua suntsitu zuen, eta jarraian osatu ziren manifestaldiak era basatian ebatzi zituen".

"Gertakari horien ondorioz ehundaka axilota, desagertu eta hildakoak egon ziren. Bitartean harresiaren beste aldean, Argeliaren lurretan, milaka errefuxiatuak basamortuan jarraitzen dute egoera tamalgarrin. Baldintza gogorrekin aurre eginez:

desnutrizioa jasaten ari dira, anemiak, beherako larriak..." gaineratu dute.

### Euskal karabana

Honela, Tindufen errefuxiatuta dauden sahararrekin behar dituzten elikagaiak, arroza, azukrea, lekadunak, sardinak, atunak eta konpresak eramateko eta jasaten ari diren krisi honi aurre egin ahal izateko, urtero bezala, Saharar Herriaren Lagunak elkarteak martxan jarri du VII. Sahararen aldeko Euskal karabana.

Ekimen honetan parte hartu nahi baduzue bi modu daude, batetik 3035 0080 94 0800054177 kontuan dirua



Sahararen aldeko janari bilketa egiten ari dira herriko supermerkatu eta ikastetxeetan.

ematea eta bestetik elikagai bilketan harritxoak jartzea.

Horretarako, Kanpainan parte hartu nahi dutenek, herriko ikastetxeetan eta

supermerkatuetan elikagaiak uzteko edukiontzia aurkituko dituzte. Bilketa hilaren 29an, Urbil merkatal gunean amaituko dute. •

# Dantza aitzaki, euskaraz ondo pasatzeko

Ttakun Elkartek hutsetik hasitako *Muxikoak* ikastaroa jarriko du abian otsailetik aurrera

Garai batean igandero herriko plazan dantzaldiak antolatzen ziren, eta bertan dantzan ikasten zen dantza egiten. Ez ziren pausu mekanikoak, jokoa zen garaioko gazteentzako, ondo pasatzeko eta ligatzeko modu bat. Egun gauzak asko aldatu dira, baina garai horietan gure dantzek zeukaten izaera berreskuratzeko, euskal musika entzuten denean plazan, begira egon beharrean dantzara animatzeko ikastaroa jarriko du abian Ttakun Elkartek otsailetik aurrera.

**J**ai edota erromerietan, jendea euskal dantzetan dabilenean, albo batean geratzen al zara betiko lotsa kontuak direla eta? Inbidia duzu dantzan ez dakizulako? Ba lasai, zuk ere parte hartzeko aukera izan dezazun, orain ikastaro berria proposatzen dizu Ttakun Elkartek. David Egizabal izango da proiektu honen gidaria.

Otsailaren Tetik aurrera *Muxikoak* ikastaroan parte hartzeko aukera izango du. Asmo zehatz batekin iritsi da ikastaroa "erromerietan dantzatzaren diren dantza horiek ikasi, eta gero festetan begira geratu beharrean, plazan dantzatzera animatzeko" adierazi digute ikastaroaren antolatzaileek.

Ikastaro hau euskaraz

izango da, izan ere dantza ikasteaz gain euskararen erabilera ere helburu baita "dantzan ikasi eta bertako harremanak euskaraz lantzeko aukera eskainiz".

## Guztientzako ikastaroa

Adin mugarik gabeko ikastaroa da. Programa zehatz bat edukiko ez duena "jendearen eskakizun eta erritmoaren arabera antolatuko dugu" dio Egizabal irakasleak. Helburu zehatza dute antolatzaileek, jendeak ondo pasatzea eta disfrutatzea "eta dantzan ikasten badute askoz hobea". Ikastaro honi esker "jai herrikoietan bazkal ondoren edo plazetan antolatzen diren dantzaletan partaidea berriantolatzen parte hartu ahal izango du" dio Egizabalek.



Iparraldeko herri askotan, hilean behin antolatzen dute dantza saioa. Adin guztietako dantzariak biltzen dira. Arg.: www.benatgarat.com

## Euskaraz bizi

Euskaraz aritu eta dantzaren ezagutza zabaltzea dute xedea. Gainera, hurbiletik ezagutzeko "irteerak ditugu

pentatuak bai dantzatzera joateko eta baita ikustera joateko ere" diote Ttakunetik.

Plazan mende hasieran aurkitzen genuen espiritu hori

ekarri eta berreskuratu nahi da ikastaro honekin. Ez galdu aukera eta urtarilaren 28a baino lehen Ttakun Elkartetik pasa eta izena eman. •

# Telefonia mugikorreko operadoreentzat kexa gehienak

**L**asarte-Oriako KIUB-ek (Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoa) 494 kexa eta 2.304 kontsulta bideratu ditu 2010. urtean.

Aurreko urtearekin alderatuta bai kexak eta bai kontsultak igo egin dira, %13 eta %15a gehiago dira aurten hurrenez hurren.

## Kexetan nagusi

Azken urteetan bezala, kexa gehienak, telefonia mugikorreko operadoreen aurkakoak izan dira, hain zuzen ere 255, ibilgailuen tailerren eta laguntza tekniko zerbitzuen kexa kopuruaren gainetik.

Kexa gehienak erabakiaren zain daude. Izan ere, hauek arbitraje-epaimahaira iristeko prozedura luzatzen baitoa pixkanaka.

Hala ere, azpimarratzekoa da, kontsumitzaile eta erabiltzaileen aldeko 131 ebazpen egon direla bukatu berri den urte honetan.



Telefonia Mugikorreko operadoreak dira Lasarte-Oria kexa eta kontsulta gehien sortarazten dituztenak.

## Kontsulta gehien

Kontsultei dagokienez, gehienak, hau da, 695 inguru,

Administrazio publikoekin zerikusia izan dute. Bigarren postuan, telefonia mugikorre-

ko operadoreak izan dira galdera gehien sortarazi dituztenak, 505 galdeketeekin.

Argia eta gasaren kontsumoak ere 146 kontsulta izan ditu, eta bankuen zerbitzuek aldiz, 86 galdeketa. Azkenengo bi galdeketa hauen eta lehenengo bien artean diferentzia handia egon da.

Beraz, administrazio publikoa eta telefonia mugikorra dira duda gehien sortarazten dutenak.

## Balantze positiboa

Jesus Zaballos alkatearen hitzetan, KIUB-en 2010. urteko balantzea "ikusten den bezala, oso positiboa da."

Alkatearentzat Kontsumitzaileen Bulegoak "zerbitzu eta gauzen hornitzaileen eta kontsumitzaile eta erabiltzaileen arteko gatazkei erantzuna emateko bitartekari izatearen bermea ematen ditu".

"Oso eraginkorra da eta ondoko herriko pertsonen ere zerbitzu hau erabiltzea dakar," azaltzen du alkateak bidalitako prentsa oharrean. •

# Segurara irteera Oinatzekin

Erreza da irteera batzuk, noizean behin antolatzea. Baina Oinatz taldeak beste zerbait bilatzen du. Lekuak ezagutzeko modu asko daude. Aisialdia pasatzeko beste hainbat. Ongi dago gure mugetatik kanpo dauden zonalde eta herrialdeak ezagutzea, baina gure inguruan aurkitzen ditugun paraje anitzak ahaztu gabe. Horregatik Oinatzek gure inguruko zonaldeak ezagutzeko irteera berri bat proposatzen dizu, oraingo honetan Segura eta Zerainerara.

ITXASO MORENO

2011. urtea hasi da eta horrekin batera Oinatz taldeak berriro irteeren programari ekingo dio. Oraingo honetan Segura eta Zerainera egingo dute bisita. Urtarrilaren 22an, larunbatean Segura eta Zerain ezagutzeko aukera paregabea duzue, beraz.

Goizeko 8:45ean ekingo zaio irteerari. Ordu horretan Jalgin izango da hitzordua eta kotxeak hartuta gure inguruko paraje berri bat ezagutzeko irteerari emango zaio hasiera.

## Egun osoko irteera

Goizean Segurara joko dute. Bertan, Ardixarra etxea, erdiaroko interpretazio zentroa eta hiri bilduan zehar bisita gidatua egingo dute.

Ondoren, energiak eta indarrak berreskuratzeko otordua egiteko denbora egongo da. Bakoitzak bere etxetik eramandakoak izango dituzte dastatzeko.

Irteera kotxe arruntekin egingo denez, parte-hartzaile bakoitzari bere kotxea erama-

tea aholkatzen diete antolatzailerak. Horrela, bazkaltzeko garaian norbait bere etxera bueltatu nahiko balu, aukera izango luke.

## Aizpitta

Energiaz beteta berriro Zerainerako bisitari ekingo zaio. Bertan, meategiak, Aizpitta adieraztegia ezagutzeko parada egongo da. Gainera, meategietan ere nola lan egiten zen ezagutzeko aukera izango dute abentura honetan barneratu nahi dutenek. Bertan, labeen galeria baten bisita egiteko denbora ere egongo da. Honetaz gain, argindarra sortzeko errota ere ezagutu ahalko da.

## Ezagutza

Oinatz taldeak antolatzen dituen irteera guztietan bezala, gauzak ikusi eta bisitatzear gain, bertako historia ezagutzeko aukera egongo da.

Gauzak ezagutu behar dira baina ulertu ere bai, eta horretarako ikustearekin bakarrik lortzen den informazioaz gain, osatzeko informazio gehiago helaraziko zaie



Landa inguruaz gain pasa den urtean Gasteiz hiria ezagutzeko parada ere izan zuten Oinatz taldekoek.



Leitzarain Bailarako iraganera hurbildu ziren Oinatz taldekoak Burdinak taldeak egindako lana ezagutzeko.

Segura eta Zeraingo bisita honetara animatzen direnei.

## Urtea ondo hasi

Ondo pasatzeko eta Euskal Herriko bazterrak ezagutzeko aukera paregabea eskaintzen

du Oinatz taldeak. Oraingoan Segura eta Zerain ezagutzeko parada egongo da, apuntatu agendan, eta hilaren 22an goizeko 8:45ean agertu zaitez Jalgin jarri den hitzordura. Taldea osatzea lortuz gero (15

lagun inguru), 6-8 euro soilik kostatuko dira bisita gidatu guztiak.

Gure inguruak ezagutzeaz gain bertako historian murgiltzeko aukera ederra izango baituzu. •

**amaraun** ludoteka

! Eskulanak, lorezaintza, txotxongiloak, mozorroak, ipuin kontaketak, pijama festa...

**GUAY** pasako dugu!

Ttakun Kultur Elkarte (Geltoki 4, behea)  
943 371448 // aisia@ttakun.com // www.ttakun.com

**ZORIONAK PEIO**

**EUSKAL PRESOK**

**EUSKAL HERRIRA**

Kiroletako agenda

**I FUTBOLA I**

**Larunbata 15**

10:30ean, Ostadar - Eibar (Infantilen Ohorezko Maila, txapelketa fasea) Michelinen  
 12:30ean, Ostadar - Internacional (I. Jubenila, kopa) Michelinen  
 14:00etan, Ostadar - Lagun Onak (Emakumezkoen Liga, kopa) Michelinen  
 15:45ean, Ostadar - Usurbil (I. Erregionala, igoera fasea) Michelinen  
 17:30ean, Ostadar - Amara Berri (Erregional Gorena) Michelinen.

10:30ean, Añorga - Ostadar (Infantil Txikiak, kopa) Rezola, Añorgan.

11:00etan, Beti Ona- Ostadar (Partehartze infantilak) Beraun, Errenterian.

11:45ean, Zumaia- Ostadar (Emakumezkoen KDT F-11, igoera fasea) Aita Mari, Zumaian.

18:00etan, Hernani - Texas Lasartearra (I. Erregionala, kopa) Zubipe, Hernanin.

**Igandea 16**

10:30ean, Ostadar - Ekintza (I. Kadetea, kopa) Michelinen.

13:30ean, Internacional - Ostadar (Alebinak, kopa) Matigoxotegi, Donostian.

16:00etan, Lagun Onak - Ostadar (Kadeteen Ohorezko maila, igoera fasea) Garmendipe, Azpeitian.

16:30ean, Beasain - Ostadar (Jubenilen Ohorezko maila, igoera fasea) Igartzta, Beasainen.

**I ARETO-FUTBOLA I**

**Ostirala 14**

HERRIKO TXAPELKETA  
 20:30ean, Morrison's - Kalaberri Z

**Larunbata 15**

18:00etan, ISU Leihoak - Debabarrena (Gipuzkoako Liga, I. maila) Kiroldegian.

**HERRIKO TXAPELKETA**

09:15ean, Illun - Epele  
 10:15ean, Naiban - Buenetxea  
 11:15ean, Obelix - Ori kristaldegia  
 12:15ean, Izkiñ - Indaux  
 13:15ean, Semblante Andaluz - Ayete  
 15:00etan, Ainhoa - Lekuona Mena  
 16:00etan, IOB H.K. - Izarra

**Igandea 16**

10:45ean, Aldaz H.K. - BilboFS. (Nazional B maila) Kiroldegian.

**HERRIKO TXAPELKETA**

10:00etan, ISU Leihoak - Viña del Mar  
 11:00etan, Ilargi - Katakras

**I PILOTA I**

**Ostirala 14**

19:00etan, Añorga - Intza (Gipuzkoako txapelketa, eskuz binaka alebinak 2. urtea) Añorgan.

**Larunbata 15**

09:15ean, Oiarpe 3 - Intza 3 (Gipuzkoako Trinketa txapelketa, eskuz bana-ka, kadetea) Ametsa trinketa, Iruran.  
 16:00etan, Gazteleku I - Intza (Gipuzkoako txapelketa, eskuz binaka, infantilak) Andoaingo ikastola, Andoainean.

**I ATLETISMOA I**

**Ostirala 14**

18:15ean, LOKEko atleta gazteek Junior, Juvenil eta cadete mailako Gipuzkoako txapelketan parte hartuko dute, „Añoetako belodromoa, Donostian.

**Larunbata 15**

10:00etatik aurrera, „Atletismoarekin ongi pasatzen” ekimenen parte hartuko dute Landaberri ikastolako infantil mailako DBH1 eta DBH2 taldeek, Anoetako belodromoa, Donostian.  
 16:45ean, LOKEko atleta gazteek Junior, Juvenil eta Kadete mailako Gipuzkoako txapelketan parte hartuko dute eta senior mailakoek Partaidetza Mugagabeko proba dute, Anoetako belodromoa, Donostian.

**I JUDOAI I**

**Larunbata 15**

16:00etan, LOKEko alebin mailako judoka gazteek Gipuzkoako mailako Eskola kiroleko jardunaldia dute, Tolosan.

**Igandea 16**

10:00etan, LOKEko judoka gazteek kadete mailako Gipuzkoako txapelketan parte hartuko dute, Hernanin.  
 Ostean, LOKEko infantil mailako judoka gazteek Gipuzkoako mailako Eskola kiroleko jardunaldia dute, Hernanin.

**I TXIRRINDULARITZA I**

**Igandea 16**

10:00etan, Bazpi Txirrindularitza eskolako gazteak pistako Neguko Sari-ko 10. jardunaldian parte hartuko dute, Anoetako belodromoa, Donostian.

**I BOLA-JOKOA I**

**Igandea 16**

Egun osoa, Ostadarreko bola joko taldeak Taldeko txapelketako bigarren jardunaldia jokatuko dute Ategorrietan.

**I ESKOLA KIROLA I**

**Larunbata 15**

09:30etik 10:45era, LH3 mailako gaztekoek Errugby topaketa antolatuta da, kiroldegian.  
 10:45etik 12:00etara, LH4 mailako gaztekoek Errugby topaketa antolatuta da, kiroldegian.

# Iñaki Galdos Buruntzaldeko kirol arduradunekin bildu zen

## Gipuzkoako Foru Aldundiak azken hiru urteetan landutako Kudeaketa Planaren berri eman zuen kirol diputatuak

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentuaren diputatua den Iñaki Galdos, Buruntzaldeko kirol arduradunekin bildu zen asteazkenean, Lasarte-Orian.

Bilera hau Foru Aldundiak martxan duen *Gipuzkoa Erakitzen* izeneko ekimenen barru dago eta Iñaki Galdosek azaldu zuen bezala, “hiru helburu ditu; bata hiru urte hauetan Foru Aldundiaren kudeaketa nolokoa izan den azaltzea, bestea herritarren partehartzea sustatzea eta azkenik, kirolaren arloan ematen diren estrategia lerroak, azpiegitura lanak eta laguntzak azaltzea.”

**Herritarren iritzia biltzen**

Sektoreka egiten diren bilerak dira hauek eta hauei esker, herritarren iritzia, proposamenak eta kezak entzun zituen Galdosek.

Esate baterako, Lasarte-Oria Kirol Elkarteko arduradunek 6-7 urteko neska-mutilek judoko eta gimnastikako entrenamendurik ezin dutela egin adierazi zuten, “kiroldegiko arduradunek horretarako



Buruntzaldeko hamabost bat kirol eragilerekin bildu zen Iñaki Galdos.

baimenik ematen ez digulako” eta Ostadar Kirol Fundazioko areto-futboleko arduradunak ere kezku azaldu ziren Lasarte-Oriako Udalak eraiki berri duen areto-futbol zelai estaliarekin, “sinesgaitza dirudi, baina euria egiten duenean ezin da pista erabili ura sartzen delako”.

**Krisia**

Krisia ere izan zuten hizpide. Elkarrekin ordezkariak babesleen eta laguntzaileen diru-laguntzen beherakada izugarri nozitu dutela nabarmendu zuten, eta “oso kezkatuta” daudela jakinarazi

zioten diputatuari. Galdosek kezka konpartitua dela esan zuen, eta 2011n Foru Aldunditik klubek eta federazioak jasoko dituzten diru-laguntzak 2010ean jasotakoekin parekoak izango direla aurreratu zuen, “Gipuzkoan ezforzatu hori egingo dugu.”

**Lasarte-Orian obrarik ez**

Honetaz gain, prentsari eskainitako tartean, Iñaki Galdos azpiegiturei buruz mintzo zen, “Lasarte-Orian ez dago legealdi honetan obrarik; orain Andoaingo futbol zelaian eta Usurbilgo kiroldegian gaude lanean.” •

# Atletismoko gaztetxoek lehiaketaz betetako asteburua dute aurrean

Asteburu honetan Anoetako belodromoan, atletismoarekin zer ikusia duten bi ekintza antolatu dira, batetik Junior, Juvenil eta kadete mailako Gipuzkoako txapelketa eta bestetik, “Atletismoarekin ongi pasatzen” ekimena. Eta bietan herriko gazteen partaidetza izango da.

**Gipuzkoako txapelketa**

LOKEko bost gaztetxok Junior, Juvenil eta kadete mailako Gipuzkoako txapelketan parte hartuko dute gaur eta bihar, arratsaldean.

Ane Galardik Kadete mailako luzera jauziko proban egongo da.

Ane de Miguel eta Eneritz Imaz jubenilak 60 metro hesiak proban eta 200 metro proban lehiatuko dira, hurrenez hurren.

Junior mailan, Gaizka Ormazabalek 200 metro eta



Gaur eta bihar, herriko atleta gazteak lehiatuko dira, Donostiako belodromoan.

400 metro probak egingo ditu eta Irati Larrañagak 200 metro proba, luzera eta altuera proban egongo da.

**Infantilak**

Larunbata goizean, aldiz, Landaberri ikastolako infantil mailako DBH1 eta DBH2 tal-

deek “Atletismoarekin ongi pasatzen” ekimenen parte hartuko dute.

Gipuzkoako beste ikastolako taldeekin lehiatuko dira herriko gaztetxoak eta sailkapena lortuz gero, Erki-degoko fasea izango dute otsailaren 5ean. •

## Egunero

### Erakusketa

DENBORAREN MUGETAN, Migel Angel Oriberen erakusketa ikusteko azken aukera gaur da. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etatik 21:00etara.

### Erakusketa

TXEFO, ARTEA TAILERRA izeneko erakusketa ikusgai. Txefo Mendezaren argazkiak dira. Jalgi kafe-antzokian, egun osoan, EUSKARAZ.



## Igandea, 16

### Zinea

MIDAS ERREGAREN ALTXORRA haurrentzako filma ikusgai. Sarrera, 3,30 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:00etan, EUSKARAZ.



## Elvis Presley-ri tributua

Kentucky Trio taldea 2007an sortu bazen ere, taldekide guztiek dute ibilbide eta eskarmentu handia musikaren munduan. Ahotsa eta gitarra "Mr. Grey"ren esku dago, pianoan Iñaki Miguel "IMC" eta Juan Carlos Caperochipi "Cape" baterian. Talde honen errepertorioa Elvis Presley abeslariaren abestien bertsioetan datza, beraz estilo batzuk jorratzen dituzte: Rock and Rolla, Rhythm and Blues, Rockabilly edo Standar klasikoak. Emanaldi dibertigarria eta kalitatezkoa.

GAUR, OSTIRALA 14  
ABEND KAFE-ANTZOKIAN  
GAUEKO 12ETAN

## Ostirala, 21

### Berto-saioa

Lasarte-Oriako BERTO SKOLAREN DESAFIOA. Jalgi kafe-antzokian, 22:30ean, EUSKARAZ.

## Larunbata, 22

### Antzerkia

LA ULTIMA CENA antzerkia eskainiko du Guindalera taldeak. Sarrera 10 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 20:00etan, GAZTELANIAZ.

## Igandea, 23

### Zinea

LA TRAVESÍA DEL VIAJERO DEL ALBA filma eskainiko dute haurrentzako zinea atalean. Sarrera, 3,30 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:00etan. GAZTELANIAZ.

## Osteguna, 27

### Zinea

UN PROFETA filma Okendo Zinema Taldearen eskutik. Sarrera 4,30 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 21:30ean. GAZTELANIAZ.

## Ostirala, 28

### Kontzertua

GORA GORA KIDS taldearen emanaldia. Talde honek nagusiki rocka lantzen du. Jalgi

kafe-antzokian, 23:00etan, EUSKARAZ.



## Larunbata, 29

### Antzerkia

NORK IKUSI DU DULTZINEA? haurrentzako antzerkia eskainiko du Agerre Teatroko lagunek. Sarrera, 3,30 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etan, EUSKARAZ.



## Igandea, 30

### Zinea

HARRY POTTER Y LAS RELIQUIAS DE LA MUERTE filma eskainiko dute haurrentzat. Sarrera, 3,30 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:00etan. GAZTELANIAZ.

## Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkariara. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz mezua txintxarri@txintxarri.info helbidera bidaliaz edo bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

## Esazu irratiko programazioa



### Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:00etara

## Oharrak

### Alboka txiki abesbatza

Alboka Txiki abesbatzak entseguak hasiko ditu, urtarrilaren 24an. 6 eta 12 urte arteko haur eta gaztetxoek irekia dago abesbatza eta ez da beharrezkoa musika jakitea. Entsegua Zumaburuko eliza azpiko lokalean egiten da, astelehenetan 19:00etatik 20:00etara. Anima zaitzete!

### Alboka abesbatza

Alboka abesbatzak 65 urte arteko herritarrek animatu nahi dituzte parte hartzera. Entseguak astelehena eta ostegunetan 20:00etatik 21:30etara burutuko dira, Arantzazuko Ama elizazpiko aretoan. Anima zaitzete!

### Arratiako Jotien ikastaroa

Erketz Dantzaren Lagunak taldeak, urtarrilaren hasita, Arratiako Jotien ikastaroa antolatuko du. Ikasi nahi duen oro dago gonbidatuta, azaltzea besterik ez du, asteartero 20:00etatik

21:15era Zumaburuko eskolara. Animatu zaitzete!

### Euskal Herriko Mus txapelketa

Euskal Herriko 3. mus txapelketa abian da eta Lasarte-Oriako kanporaketa bihar jokatu da Xirimirin 15:30ean. Izen-ematea egunean bertan izango da eta bikoteko 20 euro ordaindu beharko dira. Partehartzaile bakoitzak opari bat jasoko du, gainera txapelketako irabazleentzat sari galantak egongo dira. Informazio gehiago [www.euskalherriko-mustxapelketa.com](http://www.euskalherriko-mustxapelketa.com) atarian.

### Zentro Zibikoko ikastaroak

Emakumeen Zentro Zibikoko urtarrila eta apirila bitartean eskainiko dituen ikastaroetan izena emateko epea ireki du. Hainbat ikastaro eta ekintza eskaintzen ditu: batuka, eskulanak, frantsesa, mantentze gimnasia, pilates, kantua edo

tai-chi eta inauterietako konpartsa prestatzea.

Interesa dutenek urtarrilaren 21a arte dute ikastaroetako informazioa eskatu eta inskripzioa egiteko goizez, 9:30etik 13:30era eta arratsaldez, 15:00etatik 20:00etara.

### LOKE-ko saskiak

LOKE-k Eguberriko Loteriarekin zozketatzen zituen saskien zerbaki irabazleak honako hauek dira: Aginaga sagardotegian lau pertsonentzako afaria, 9.250 zerbakia (mahai teniseko atalak saldua), eta Txartel txokon lau afariak, 0.147 zerbakiari dagozkio (atletismoko sailak saldua). Sarituak Manuel Morales-ekin harremanetan jarri behar dira, 656 715 700 zenbakira deituz.

### Sahararen aldeko egutegia

Euskadi-Sahararen Otsailak 27 koordinadorak egutegiak jarri ditu salgai Sahararen

alde. Egutegi hauek Jalgi, Obelix, Sustrai, Ilargi, Iñaki eta Artizar tabernetan egongo dira salgai 7 euroren truke. Bildutako dirua, janariaren eskual karabana antolatzen laguntzeko bideratuko da.

### Kukukaren egutegia

Kukuka Antzerki eta Dantza Eskolaren aldeko egutegiak salgai daude 5 euroren truke Orbela belar denda, Urruzola mertzerian eta Basaundiko Denda-Berrin.

### Ostadar Atletismo

Korrikarako zaletasuna baduzu gerturatu zaitz Ostadarko bulegora.

Ekipazio berria egitera goaz eta herriko gizon-emakume guztioi luzatu nahi dizuegu Lasarteko korrikalari taldeko kide izateko aukera.

Informazio gehiago Ostadarko bulegoan, geltoki kalea 25ean, edo 943360433 telefonon.

Komentatu zure lagunekin eta animatu zaitzete!! Epea: urtarrilak 31 arte.

### Ostadar Loteria

Ostadarrek urtero "El Niño"ko loteriaren batera nekazal etxe batean bi pertsonentzako asteburua pasa zozketatzen du eta aurtengo zenbakia irabazlea 70.013 izan da. Beraz, irabazleak Ostadarreko bulegora deitu behar du saria eskuratzeko. Tel: 943360433.

### Ostadar saskia

Ostadarrek bazkideen artean Gabonetan zozketatu zuen otarraren zenbakia 945 izan zen eta Antonio Otaegi Urruzola egokitu zaitza.

### Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 366858  
txintxarri@txintxarri.info



Presoen senitartekoez, bertsolariak eta herritarrek irakurri zituzten olerkiak eta eskutitzak. Gehienetan bakarkako irakurketa izan bazen ere, olerki eta eskutitz batzuk taldean taularatu ziren.

## Irakurketa hunkigarria

Lasarte-Oriako, zein beste herrietako presoen olerkiak eta eskutitzak irakurri ziren Xirimiri elkartearen

**L**arunbatean, Euskal presoen eskubideen alde Bilbon egin zen manifestazioari aurre hartuz, ostiralean, urtarrilaren 7an, Lasarte-Oriako presoen hitza izan zen protagonista, Xirimiri elkartearen.

Musika, kantua, dantza,... lagun, Lasarte-Oriako, zein beste herrietako preso politikoaren poesia, eskutitz eta bertsoak entzun zituzten Xirimiri bete zuten herritarrek.

Ekitaldi hunkigarri eta berezi honekin, Eguberrietan senide eta lagunek antolatutako ekimenei, hala nola, abenduaren 24ko brindisa eta abenduaren 31ko manifestazioa, amaiera eman zieten.

Ekimen hauek guztiak, herriko preso politikoek beste urte bete kartzelan eman dutela gogoratu eta hauek bizi duten egoera salatuz egin dituzte.

### Hitza nagusi

"Harresi guztien gainetik, sarraila guztien azpitik" ekitaldi intimista izan zen. Honetan, senideek, bertsolariak eta herritarrek presoen bidalitako olerki, eskutitz eta bertsoak irakurri zituzten.

Eta hauen hitzak ulertu eta baneratzeko herriko musikari, abeslari edo dantzarien laguntza eta irudi, hots eta argi jokoak erabili ziren.

Era berean, azken bi urteetan herrian, zein Euskal herrian gertatutako berrien laburpena ikusi eta preso politikoaren egoeraren berri eman zen.

Ekitaldiaren amaierako txalo zaparrada baino lehen, ikusleak ere kantuan jarri zituzten.

Baina kartzelatik idatzitako presoen hitzak ez ezik, margoak ere iritsi ziren. Izan ere, Xirimiri elkartearen Agina-

ko Patxi Segurola, "Ximio", presoen lanen erakusketa txikia egon zen ikusgai.

Ekimena modu paregabearen amaitzeko, parte hartzaile eta herritarrek bapotea zuten Xirimiri elkartearen.

### Herrian presente

Ekimen honen bitartez, herritik urrun badauzkate ere herritarrekin lotura dutela eta herriko bizitzan presentzia dutela aditzera eman nahi dute antolatzaileek.

Gainera, aurreratu dutenez, irakurketa hau ez da ekintza isolatua izango. Kartzeletatik testu gehiago iristen diren heinean beste bertso, kontakizun eta olerki errezitaldiak burutuko dira.

Era honetara, tarteka ekitaldiak eginez, elkarren berri izateko bide horri bizirik eutsiko zaiola adierazi dute antolatzaileek. •



Amaieran, hirukote honek Xirimiri bildutako ikusleak kantuan jarri zituen.



Aginako Patxi Segurola presoen margoak ere ikusi ziren Xirimiri elkartearen hormetan.



Dantza, kantua, musika, hotsak, irudiak,... Horiak guztiak, hitzen laguntzaile izan ziren eta, era berean, Xirimiri elkartearen bildutako herritarrek presoen olerki eta eskutitzak hobeto ulertzeko balio izan zuten.